



GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN EGUNA

Gipuzkoako 34 sagardogile bildu ziren Donostiako Sagardo Egunean, eta, urtero moduan, lagun ugari dastatu zituzten haien sagardoak.

Guztira, 8.000 botila ireki ziren eta edan zituzten Konstituzio plazara inguratu ziren 5.000 pertsona inguruk Donostiako Sagardo Egunean, irailaren 2an. Gipuzkoako 34 sagardogilek eraman zuten sagardo hori guztia.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarrekin antolatu zuen ekitaldia, Donostiako Udalaren eta Donostia Kultura erakundearen laguntzarekin, arrakasta handiarekin, Konstituzio plaza gainezka egon baitzen. Gipuzkoako sagardogilek egindako sagardoak dastatu ahal izan ziren, Euskal Sagardoasor-marka-

koak eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarrekin sagardo bereziak, horien artean. Eta hara bildutakoek egileekin hitz egiteko parada izan zuten, beren sagardoei, sagarrei eta sagardoa egiteko prozesuari buruz.

Halaber, sagarra jo, zanpatu eta muztioa dastatzeko aukera ere izan zen Konstituzio plazan bertan. Jendeak, muztioa nola egiten den ikusi, eta 2017ko uztako lehen muztioa dastatzeko aukera izan zuen. Horrela, sagardogintzak atzean duen lan eta kultura guztia ezagutarazi zuen Gipuzkoako Sagardogileen Elkarrekin kontsumi-

Gipuzkoako sagardogileak
topa egiten,
Sagardo Egunean.

GIPUZKOAKO SAGARDOGILEENA

tzaileei nahiz etxeko txikienei muztioa dastatzera emanez.

Azkenik, Donostiako Sagardo Egunean, omenaldia egin zioten Gipuzkoako Sagardogileen Elkarrekin Joxe Miguei Bereziartuari, sagardogintzari eskainitako bizitza eta lanagatik.

Erreserbak, klik batean

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarrekin web bidez sagardotegietan erreserbak egiteko aukera eskaintzen du www.sagardoa.eus helbidean. Txotx garaian zein urte osoan sagardotegian lekua hartzeko aukera eskaintzen du, eta baita sagardoaren mundua ezagutzeko bisita gidatu, esperientzia eta ekintza turistikoak ezagutu, erreserbak egiteko eta erosketak egiteko ere. Horrez gain, urte osoko agenda eta erabiltzailearentzat interesekoa izan daitekeen informazioa aurki daiteke helbide horretan.

BERTAKO SAGARREKIN EGINDAKO SAGARDOA

EGYZKITZA
TOLARE SAGARDOTEGIA

Usabal/Auzoa, Amaroz • Tel.: 943 67 26 13 • 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)

R. ZABALA
Sagardotegia

Astelehenetik larunbatera, gauex irekita. Ostiralean, larunbatean eta igandean, eguerdian sabalik (enkarguz). Txotx deuboraldian bakarrik

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO SAGARDO LEHIAKETAREN TXAPELDUNA HIRU ALDITAN

Garagartza baserria
Tel.: 943-69 07 74
20150 ADUNA (Gipuzkoa)
www.rzabala.com